

AKTA

Bilera eguna: 2012.05.23

Bilera tokia: Kultur Etxea

Bertaratuak: Olatz Olariaga, Amaia Urkola, Cristina Salsamendi, Iñaki Iturain, Alberto Agirreazaldegui, Garbiñe Manterola, Imanol Manterola, Pello Orbañanos, Eneritz Odriozola, Miguel Nacenta, Maria Illarramendi.

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 20:45

Gai ordena

1. - Orioko Mugikortasunaren azterketa: Oinezkoak, bizikletak eta motordunak. Hiru taldeetako bakoitzak egindako hausnarketa eta elkarjartzea

Bileraren garapena

1. Ekintza konkretuak. Mugikortasuna

(I) Bizikletak: Orioko bidegorriaren proposamena

-Dokumentu bidez bidegorriaren proposamena egin da, Orio guztia zeharkatuko lukeen sarea litzateke. Gaur egungo bidegorria ez delako sarea, irla txikiak baizik. Elkarren artean lotu behar dira.

-Eman beharreko pausuak azaldu dira: bidegorri sarea sortu, bizikletak uzteko lekuak ugaritu, bizikletaren erabileraren aldeko kanpaina egin. Dokumentazio lana egin da eta lehenagotik eginda dauden bidegorriaren proiektua errekonstratuz, bidegorri sarea egiteko udalak dirua inbertitu behar duela azpimarratu da. Gune batzuetan egin beharrekoa presazkoa litzateke, zerrendatu egin dira.

-Bidegorri sare egokia egiteko egun egin gabe dauden eta garatu beharko liratekeen eremuak identifikatu dira. Garrantzitsuenak eta presazkoenak iruditu dira: (2012.urterako)

* Diketik herriko zubirako bidea.

* Arrantzale kalea

* Moila. Hau egiteak denbora gehiago eskatuko luke. Baina aztertzen hasi daiteke.

-Eremu batzuetan seinalizazio egokia jartzeaz gain egin beharreko aktuzioa oso txikia, erraza eta ekonomikoki bideragarria (lurra margotu adibidez).

(II) Oinezkoak: Oinezkoak 2012 proposamena

- Dokumentu bidez azaldu da.

- Ibilgailu motordunek urteetan irabazitako protagonismoa eta espazioa berreskuratu behar diren garrantzia aipatu da. Garraio sistema ez iraunkorretik sistema iraunkorretara aldatzeko bideak jorratu behar

direla esan da, oinezkoak eta bizikletak, ibilgailu motordunen aurretik baitaude ingurumenaren zaintzan (motordunek sortzen duten kutsadura, zarata, azpiegituren erabilera etab. direla eta).

- Honetarako, epe ertainean aldaketak burutu ahal izateko kontutan hartu beharreko gomendioak jaso dira: peatonalizazioa, Goiko Kalen ibilgailu pribatuen erabilera murriztea, zebrabideetan oinezkoak segurtasuna irabaztea, bidegorrian oinezkoak ibil ez daitezen sentsibilizazio kanpaina bultzatzea.
- Herrian zehar hainbat puntu identifikatu dira, epe motzean soluzioa izan dezaketenak (Taulan jasota).

3. Etxekolanak.

TBaren 9. bilerarako etxekolanak

Zer	Nork
Orioko mugikortasuna: lantaldeen azterketa eta ondorioak. Elkarjartzea.	TB

Besterik gabe bilera bukatu dugu hurrengo bilerarako deialdia egin da, ekainaren 7 rako (19tan k.etxen)